

## Agur t'erdi, Monzon jauna

*Deia, 1977-08-09.*

Telesforo, ongi etorri.

Ongi etorri Hego-Euzkadira, ongi etorri Gipuzkoara, ongi etorri Bergarara, ongi etorri Olaso dorrera.

Denak zure etxe bakar baitira.

Baina honetaz gainera hitz bi esan nahi dizkizut.

Zurekin, gure herriko gizon soilarekin, gure herriak izan duen buruzagi bat etorri da, abertzaletasunean izen handi bat duen norbait, gaurko egoera zail honetan bide berezi eta zail bat hartzera ausartu den gizon bat.

Eta oraindik gure herritik kanpora dauden atzerriratuentzat eta espetxeratuentzat Amnistia eskatzera etorri zara; hori eskatzen dabilen herri-talde batean Amnistia eskatzen eta Amnistia horrek ikutzen dituen beste gure herriko gudari batzuekin batera, nabarmenki, etorri zara.

Zorionak; ongi etorri, Telesforo.

Zurekin gaude.

Zaharrak eta gazteak, denak, bere herrira itzuli ahal izateko hemengo kondizio guziak lortu arte, zure egin duzun borroka gure ere sentitzen dugu.

Orain, Bidasoa honunzko lanetan zaitugula, izango duzu arazo bat baino gehiago. Gure herriaren bideak, eta zuk ondo aski dakizu hau, ez dira errazak. Guda gaizto hark denak utzi gaitu zaurituak; eta geroztik jaiotzen joan diren guziak ere badirudi zauriarekin jaiotzen direla. Ez diogu elkarri entzuten, eta, honetan, ezin dugu inolatan ere elkar ulertu.

Hala ere, behar dugu jarraitu elkar adiketarako egiten ari garen ahalegin guzietan.

Eta zuk honetan baduzu zeregin berezi bat.

Gure herrian zatiketa bat baino gehiago nabari da. Honen artean bat, belaunaldien arteko dugun leizezuloa. Ez da bakarrik elkar aditzen jarri ere ez garela egiten; hizkuntza bera ez da berdina, eta gero kredibilitate falta handi bat nabarmentzen da gure artean. Zu, guda garaiko belaunaldi bateko gizona izanik, Euzkadin gaurko belaunaldia oso markatu duen joera batekin ageri den gizon publiko bat zara. Eta asko dezakezu. Joera honetako eta hain abertzale diren besteak ere ondo ezagutzen dituzu, ulertzen dituzu, sentitzen dituzu. Behar zenuke bi hizkuntzak bateratzen ahalegindu.

Zuk biak ezagutzen dituzunez badakizu, lehengoa oinazeak gaurko oinazeak direla; lehengo neke eta espetxeak, gaurkoak; gaurko hilak, lehengoak berak. hemen ez daudela bi Euzkadi; lehengoa eta oraingoa bat besterik ez direla; eta ez dugula besterik! Eta ezin dugu galdu. Nongo izango dira, orduan gure seme-bilobak!

Euzkadi denok eta egunero egin behar dugu. Iraultza eta eguneroko ekintza bideak ez datoz askotan bat; baina hitzek mamitzeko behar dute giroa, eta ura eta eguzkia; eta behar dituzte sustraitzeko beharrezko diren lurra; nahi bezalako frutuak lortzeko behar

dira lur horiek landu eta ongarritu; eta heltzeko behar duen denboraldia behar da itxadon. Behar da honetarako pazientzia. Ez gehiegi, aitzeki baita askotan. Baina bai nahikoa; beste muturrean, errealdia besterik ez baitago. neurria, badakit, zaila da.

Denok, bakoitzak beretik, dugu arrazoiren bat; denori falta zaigu arrazoi zatiren bat. Hemen, zorionez, ez da inor arrazoi osoaren jabe.

Entzun ditzagun zati guztiak; bakoitza bereari jarrai gakizkion, legezko den bezala; baina hitz eta ekintzetako bideak egin ditzagun anaikero.

Zuk, nahi edo nahi ez baduzu ere, izango duzu honetan parte.

Ongi etorri, Telesforo.

Agur jauna; agur t'erdi.